

PORTU ZAHARRA 1

Erdiaroko Getxok lau zati nabarmen zituen: **Getxo** elexaldea (parrokia eta jauntxoan etxearen gunea), **Portua**, **Alango** eta etxe honetan dagoen **Jardingana**.

Jardinganak inguru hau guztia izendatzeko erabiltzen zen toponimoa zen; nahiko toponimo zabala eta Alangorekin batera Usategitik Fadurarainoko lurak hartzen zituen.

Beranduago, XIX. mendean, **Algorta** izenak **Alango** eta **Jardingana** moduan ezagutzen zena ordezkatu zuen.

PORTU ZAHARRA 2

San Nikolas kale honetan, **Diliz etxea** (San Nikolas kalea, 8) Elexaldeko Diliz baserri zaharretik hartutako izena. Diliz izena Dilius pertsona izenetik eratorritakoa da eta jabetza adierazteko modu zaharra da (Diliusen etxea). Jabetza hori adierazteko, euskarak, **-IZ** atzizkia erabili izan du.

Beranduago baina gauza berdina adierazteko **-ANO** eta **-ENA** atzizkiak erabili izan dira; adibidez Busko Erdi Aroko izen latinotik dator **Muskiz** Bizkaian eta **Muskitz** Nafarroan; XIX. mendeetako etxeetan, Buskoena edo antzekoren bat izango zatekeen.

Esan bezala Diliz baserria antzinakoa da **Algortan**; jatorrizko Diliz etxea Getxoko Andra Marin dago eta handik etorri zen norbaitek ekarri zuen izena. XX. mende hasieran Algortako etxe txiki tipikoetako bat zen hau baina gerra aurretikoan, Bastida arkitektoak hormigoizko egitura egin zion eta Portu zaharreko jendea hona etortzen zen bonbardaketak zeudenean; hormigoizko egitura zuen etxe bakarra zelako.

Abasota kalea. **Abasota**, haitza da; hondartzaren goiko aldean, skate gunean dagoen haitza. Abasota izeneko haitz horren gainean, kanoien bateria famatu bat egon zen, "San Ignacio" bateria.

PORTU ZAHARRA 3

Perutxoena (San Nikolas kalea); Perutxoren etxea esan nahi du. Peru, euskarako "Pero"tik dator eta erromantzeko "Pedro" da; hau zen XVI. mendean Algortako izenik arruntena

Irurak Bat (san Nikolas, 11) eta egungo **Artibai** kaleen artean egon zen **Fika** etxea. 1950ean bota zuten eta lorategi bihurtu. 1887an **Elorriaga** izenaz dokumentatu zen Gabriel Elorriagak erosi zuelako. Herri etimologiak piku landarearekin lotzen badu ere **Fika** herri izenetik dator. Gaur egun Fikaena izena du Etxeandia kalean dagoen pisuetako etxe berriak.

Fika izena duen bigarren etxea, hor atzean dagoen **Fikenabarri** da. XVIII-XIX. mendeetako eztanda demografikoaren ondorioz, ohikoa bihurtu zen etxeak bikoiztea edo lubarrietan etxeak egitea; hemen ere, Fika etxearen lurretan eraikitako bigarren etxea da Fikenabarri.

Ezkerraldean **Alasne** izeneko txaleta (san Nikolas kalea); harria janda dago eta ez da apenas izena irakurtzen baina jabeak bere emaztearen izena jarri zion.

Emaztearen izena "Milagros" zen eta hau euskaratuta Alasne. Negurin eta Areetan ere asko ikusten den moduan, euskaltzaleak izan ez arren, XX. mende hasieretan euskarazko izenak erabiltzeko joera egon zen; euskara eguneroko gauza izan ez arren, sinbolismo handiko elementua zelako.

Irurac bat. Motibazio politikoa duen izena. Atarian 1843-1943 jartzen du. 1843an erre egin zen eta itxuraz txalet bat ematen badu ere, barrutik antzinako etxe itxura du. berregin zutenean gehitu zizkioten miradorea eta pisua. Izenari dagokionez, 1840 inguruan agertu zen lehen aldiz eta foralisten leloa zen, motibazio politikoa zuen beraz.

Ikusten da hareharria nahiko higituta dagoela eta ez dela oso kalitate handikoa; uste da Urdulizko harria dela. Tresnak zorrozteko erabiltzen zen "destera" deitzen zaion harri mota da.

PORTU ZAHARRA 4

Obispo Etxeandia kalera heldu gara. Hemen atzean **Teresena** (san Nikolas kalea, 18) etxea eta horren atzean **Bakione** (Galindo kalea); Bakiona edo Bakione etxe hau, Teresenaren lurretan eraikitako bigarren etxea da berez; hasieran, Teresena de San Miguel deitu zitzaion eta Teresenaren bigarren etxe hori, XIX. mendean erosi zuen Bautista Urretxuak, Batxi Bakiok. Batxik, etxeari pisua gehitu zion eta orduan pasatu zen etxea **Bakiona** edo Bakione izatera.

Hemen bizi izan zen Katarra izeneko auzoko pertsonaia ezaguna ere; Katarra honek Euzkadi egunkarian idazten zuen. Ezizena katuak hazi eta jaten zituelako zetorkion; Katuetan, bakarrik ar gazteak jaten dira; horregatik katarra. "Matamiau" ere deitzen zioten. Izkina honi oraindik jendeak "la esquina de **Katarrene**" deitzen dio (Etxeandia Obispoaren eta San Nikolas kalearen bidegurutzean)

Etxe hau eta albokoa jabe berdinarenak ziren; bata bestearen lurretan egin zuten eta bigarrenari **Katarrene barria** deitu zioten

Askane. Atx+ganetik dator; ibilbidea ez da etxetik pasatzen (Basaldua kalea, 5) eta jatorria gero ikusiko dugun itsasoko harri batean duena baina toponimo aipagarria da pertsona izen bat ez duelako jatorrian; horrek esaten digu izen oso zaharra izan ahal dela. Etxe horren izena toponimo deskribatzailea da; kasu honetan, **Askane** (atx+gane), **Askorri** (atx+gorri), **Aspiribil** (Atx+biribil) eta antzekoak bezala, "s"z idatzi beharko lirakeke **atx** bizkaierazko hitza "S" bihurtzen delako. Baina XX. mendearen hasierako purismoan, "Z" hizkia jartzeak jatorragoa ematen zuen; hortik dator adibidez gaur egun **Azkorri** erabiltzea edo Haize errota erabiltzea eta ez jatorragoa litzatekeen **Axerrota**; Bizkaierak ez du, toponimian behintzat, prestigiorik izan. Azkue izan zen toponimia sortzaile nagusietakoa eta terminologia sortzerakoan, Lekeitiarra izan arren, beti jo zuen gipuzkerara.

PORTU ZAHARRA 5

San Nikolas kale honetan **Kaibide** etxea (San Nikolas, 20), Bastidak eginda bere seme-alabentzat. Izena kaiaren bidean dagoelako da... oso ederra eta kokapena oso ona; haize gogorretatik ondo babestua.

PORTU ZAHARRA 6

Gaur egun asko eta asko galduta dauden arren, itsasoko harriek ere izena zuten; adibidez, **Sansonarri** "peña de Sanson" euskarazko toponimoak. Zergatik jarri izena itsasoan dagoen harri bati? Ba momenturen batean arrantzarako erabilera praktikoa izan zuelako.

Galdaretxe eskuinaldean, hau ere uretan dagoen haitza Galderetxe. Pasteleriak ere hemendik hartzen du izena.

Behean **Askanpe** alkatea batek Arrigunagako bidea egiteko asmoa zeukan baina porrot egin zuen asmoak eta 1940an bete egin zen berriro. Karramarro, eskara, kabrak eta antzekoak hartzeko tokia zen auzokoentzat; nolabait, dietaren osagarri.

Gero, **Jenaratxu** aipatu behar da. Jenara Karola tabernako jabearen amama izan zen eta inguru honetako ortuak kudeatzen zituen nahiz eta bereak ez izan.

Erriberamuna; erribera kostalde guztia da izatez; erribera gaineko eremuari deituko zaio Erriberamuna. itsasoa eta erriorearen egoera ikuskatzeko toki egokia; horregatik garaiko lemanek eta arrantzaleek erabili izan zuten Ibaizabalgo sarreran ohikoak ziren haremunen bilakaera ikuskatzeko, Galernak zaintzeko eta denposapasarako.

Ar+tzu+arka harrizko aska. Jatorrian iturritxo bat eta lurrian sartzen zen zuloa zegoen. Gerra zibilean izandako bonbardaketetan babesleku bezala erabili zuten auzokoek.

Gaur egun jaiak hemen egiten dira eta esaten denez, hemen, jai batzuetan asmatu zen kalimotxoa; kuadrilla batek zeukan ardoa pikatuta zegoela eta koka-kolarekin nahastea erabaki zutenenean. Esaten denez gainera, izena kuadrilla horretako lagun biren ezizenetik eratorria da: "Kalimero" eta "Motxo"

Hor behean eskaileratik jaitsi eta ezkerretara lehenengo taberna, "benta" egiten zan; Kofradia 1936an galdu zen baina arrainen salmenta egiteko "benta" taberna horretan egon zen eta Portugaletera pasatzen ziren beraien arrainak saltzera. Hau eta Aingeruko benta dira Getxoko tabernarik zaharrenak; biak taberna bakarra osatzen zuten "Etxebarri" Gaur egun bi dira "Arrantzale" eta "Txomin".

Bilboko **Abra**, Nerbioi ibaiko azken atalean dago. izen generiko bezala, abra asko dago Euskal Herrian baina hemengoa izen propioa da (kasu honetan Bilboko Abra). Bilboko hiri-gutunak jasotzen duen bezala, **Abran** hainbat eskubide zituen Bilbo hiriak; besteak beste, baleak harrapatzeko, merkataritzarako eta abar.

Azken mende honetan asko aldatu da. 70.ko hamarkadan, Europako lekuri kutsatuenetariko bat zen. Izan ere bai biodibertsitatea zein uraren egoera oso txarrak ziren. Materia organiko ugari zegoen uretan baita materia toxikoa ere.

Horretaz gain, ura oso arrea zegoen eta oxigeno maila baxuegia zen. Kutsaduraren eragina oso larria zen biodibertsitatean, egia esan, edozein bizitza mota ia desagertu zen ibaitik.

Hori dela eta, 1979an agintariek itsasadarra garbitzea erabaki zuten. Harrezkero egoera asko hobetu da. Abrako kanpoaldean, **Arrigunagan**, itsasertzeko eremuan (mareartean eta mareazpian) kutsadura zela eta, eremua biologikoki txarra zen. Gaur egun urak oso garbiak dira eta biodibertsitatea oso handia da fauna eta flora ugariarekin.

Bilboko Abran flora eta faunako aberastasuna egundokoa da. Biodibertsitatea gero eta handiagoa denez, autogarbigeta prozesua gertatzen da eta arrain, ornogabe eta

organismo franko etortzen dira janaria eta babesaren bila. Apika etorkizunean izurdeak, fokak edota beste itsas ugaztun batzuk ere ikusi ahal izango dira.

PORTU ZAHARRA 7

Etxezarra (Erribera kalea 45) izenak esaten duen moduan Portu Zaharreko lehen etxea zen edo geratzen den etxerik zaharrena; hau da **Algortari** izena ematen dion etxea...“har gorta” “harrizko gorta” “Argorta”. Portu Zaharra sortu zenean XVI. mendean, ez zen marinelentzako toki moduan sortu baizik eta animaliak eta lanbide ugariak zituen jendez bete zen. Algortaren kasuan, ahuntzak zituen gordeleku moduan ulertu behar dugu. Eta hemen hipotesi bi dira; batetik “korta” gaztelaniazko “sel” “saroi” “sarobe” moduan ulertzea; hau da, forma biribila zuen lur sail handi bat, nahiko arraroak itsasbazterrean eta bestea ahuntzak gordetzeko gordelekua; normalagoa ematen duena.

San Nikolas ermita: hamazazpigarren mendean eraikia; baliteke egurrezkoa izatea hasieran; oso gutxi erabili izan da eliza moduan. 1634an egin zuten baina elizkizunak ez ziren hasi 1792an konpondu zuten arte eta bitartean bilerak egiteko erabiltzen zen, Gazteluzarreko kanoiak gordetzeko; gero, nautika eskola egon zen hemen...herrikoek perrera ere esaten diote kalabozo txiki bat duelako.

PORTU ZAHARRA 8

Ondo ulertu badugu dokumentazioa, **Perizena** zaharra eta Perizena berria (Portuzarra 6 eta 8), honek ematen digu euskaraz **Perez**, deituraren euskal forma, Bizkaian **Periz** .. Bizkaian amaiera guztiak “**IZ**” dira, “Gerrikaitz” salbu beste arrazoi batzuentatik; gainerako guztiak Oiz, Lemoiz...“-**iz**” amaieradunak dira. Hemen Estibaliz da ez Estibalitz . beste adibide bat Ondiz .

PORTU ZAHARRA 9

Portu zaharreko plaza hau den lekuan, etxeak ziren; gero **Etzetxu** (Portuzarra, 10). Hemen grabatu zen Elorriagaren liburuaren oinarritutako pelikula “SPrako tranbia”ren egokitzapena (un poco de chocolate).

Badirudi euskararen galera 50eko hamarkadan edo eman zela Portu Zaharrean; euskara galtzarekin batera, toponimia degeneratzen joan zen eta horren bi adibide: **Etzetxu** “El Txetxu” izatera pasatu zen ahoz eta bestea **Erriberamune**, Erribera Mune izatera pasatu zen. Gauza bera gertatu izan da beste toki batzuetan ere: **Billaondoeta**, “villa Botas” bihurtu zen eta errekaen beste aldean, **Larraineta**, La Reineta

PORTU ZAHARRA 10

Manuelabareño. 1796an agertzen da lehen aldiz toponimo hau, XX. mendeko notarioek deformatutako toponimo. Berez **Ramosena** (Erribera 26) zen etxearen izena baina notarioren batek kopiatzerakoan Ramosena txarto kopiatu eta Manosena, Manuena bihurtu.

Hemengo etxe guztiak **Ramosena** dira, berez etxe bakarra zen eta etxe horren ortuetan egin ziren etxeak dira guztiak...**Sarrantxena**, (Portuzarra, 2; Erribera kaleagaz izkina egiten duena) auskalo nondik datorren; ezizena ematen du. Sarrantxena etxea 1796koa omen da eta “**Algorta**” edo “**Etxezarra**” etxearen ortuan egin zuten.

PORTU ZAHARRA 11

Portu Zaharrean etxe batzuk landareak izenetatik eratorritakoak dira: **Gorosti**, (kalebarria, 11) **Aretxondo**.

Beste batzuk pertsona izena dute barrenean **Adamena** "m"kin (Aretxondo, 9) ze euskaraz Adam izena "m"rekin da. **Tatoena** (Erribera, 20) ezizena da; edo tatoa, txikia zalako edo tatoak egiten zituelako. **Dobaranena** (erribera, 33) Urdulizko auzoa; **Jakobena**; (erribera, 28) Jakob izenekoren batena.

Kalebarriak Erribera kalearekin bat egiten duen tokian, "Farolaren iturria" dago. 1895ean argiteria elektrikoa jarri aurretik hemen zegoen farolagatik deitzen da horrela.

Axpe; toponimoak etxeari eman zion izena eta beharbada horregatik Askanpe azaldu ahal du honek; Axpe bi ez egoteko, bata Axpe eta bestea Askanpe.

Ahizpak; ahizpa bik erosi zutelako. Ugazabak ipinitako izenaren adibidea.

Kaleja: arrunta hirietan.

Sanioanena, Sanioansoro- Sanyoanena, Sanyoansoro; (Erribera, 15) nahita ipini zaio honi "i" idatzizkoan, jendeak ikus dezan horrela irakurri behar dela. "j" ahoskatzea sartu aurretik **"I"** baino ez zen erabiltzen hemen. "j"; bakarrik Jainkoa eta erlijioarekin lotutako terminoekin ahoskatzen zen. "J" ekialdeko bizkaieratik etorritako "j" prestigiotsu hori ekartzeaz arduratu ziren predikatzailleengatik finkatu zen.

Jata toponimoa, mendia, "j"z ahozkatzen da "iata" izan beharko litzatekeenean eta Iotaz esan beharko litzatekeena "jota" bihurtu da idatzizkoaren eraginez eta prestigio handiagoko beste euskara batzuen eraginez.

Aketxena, (Erribera, 23) **Trabudua** (Erribera, 19) etxea **Atx** gainean dago Atx gainean dagoen **Trabudua**; dokumentazio zaharrean "Trabudua de Acha" eta hori da **Astrabudua**

Amaitzeko. Toponimoen sorrera eta trukaketa adibide politak daude hemen. Jatorrizko **Algorta** etxe-izena, auzunea izendatzera pasatu zen eta etxeak **Etkezarra** hartu zuen. Gero, maldaren goialdean, parrokia berria egin zenean, Algorta izena lekuz aldatu zen eta azkenean **Arriluze** portu berria egin zenean XX. mende hasieran, hau, **Portu Zaharra** izatera pasatu zen.